



TOLOSAK GUINNESS ERREKORRA LOR DEZAKE

Munduko txokolate tableta handiena egiten saiatuko dira herriko gozogileak bihar, Tolosa Goxua azokan 3

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2009-10-30

VII. URTEA 1.814. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO


Agenda 21eko proiektu partekatuak bideratzeko zerbitzu berria abian da

TOLOSALDEA Tolosaldea Garatzenek eta Tolomendik gauzatu dute eta eskualdeko 12 udalek hartzen dute parte

HELBURUA Garapen iraunkorra eskualdean bultzatu nahi dute; Foru Aldundiak hiru urtez lagunduko du diruz 6



Foru Aldundiko, udaletako, Tolosaldea Garatzeneko eta Tolomendiko ordezkariak, atzo Alkizan eginiko aurkezpenean. I.G.



Esloveniako Chamber Choir Krog, atzo, Leidor aretoan. I. TERRADILLOS

XABI BANDINI
KEROBIA TALDEKO ABESLARIA

«Sentsazioak eta emozioak helarazi nahi ditugu zuzenekoan»

TOLOSA Bonberenean ariko dira bihar, 22:30ean 2

Ekitaldiz beteriko Asto Festa izango dute bihar

ELDUAIN Jose Luis Artola marka berria egiten saiatuko da Muga tontorrera igoz 5

Ahots nahasien txanda izango da gaur Abesbatza Lehiaketan

TOLOSA Musika erlijiosoan eta profanoan ariko dira sei abesbatza, Santa Klaran eta Leidorren 4

informazioa
h

HITZAren harpidedun egiteko:

902-82 02 01
hitza@harpidetza.info



egunkaria buzoian, zozketak eta deskontuak, promozioetan abantailak,...

HITZARI buruzko informazioa



HITZAK harpidedunentzat sarrera pareta du emanaldi bakoitzerako

Lehiaketa TXOKOA hitza



sarrerak


Gaur, 20:00etan • urriak 30ko Abesbatzen emanaldirako sarreraren sariduna

o Sagrario Sorondo (Irura)

sarrerak leihatilan bertan

Urriak 31ko Abesbatzen emanaldirako Larunbata • 16:00etan eta 19:00etan

sarrerak eskuratzeko 943-65 56 95 telefono zenbakian



Proba ezazu gure baserriko haragia



5 Kg-ko sorta 58€tan (banaketa DOAN)
Xerrak (hiru mota), haragi xehega, saiheskia, zankarra, gisatua, txuleta.

Egin eskaria eta etxera eramango dizugu:

943-30 43 32 (ordutegia: 9:00-17:00) edo saski@lurlan.org

Dendak: Boulevard 7 eta San Martin merkatuko C4 postuan (Donostia)

E Elkarrizketa**XABI BANDINI** › Kerobia taldeko abeslaria

Musika › Kerobia taldeak bere azken lana 'Papera eta kartoia' aurkeztuko du bihar Bonberenean; gaur berriz, Señor No eta Dirty Pink entzuteko aukera izango da.

ESTI EZEIZA

Bonbereneako urriko egitarauari amaiera emateko, hiru talderen zuzenekoaz gozatzeko aukera izango da. Gaur, Señor No Donostiarrak eta Dirty Pink Ladies talde madrildarra izango dira eszenatoki gainean, 22:30etik aurrera. Bihar berriz, garai berean, Kerobia talde nafarra. Iruñakoek 2008an abiatu zuen proiektuaren bigarren zatia aurkeztuko dute Tolosan. Orduan ekin zioten, autoekoizpenaren bidetik, trilogia baten osaketari. Kontainerrak ardatz hartuta, ontzi urdinaren txanda da. *Papera eta kartoia* izena baitu zazpi kantu biltzen dituen beraien azken argitalpenak. Oraingoan ere, Kerobian jarraitzaileek, beraien webgurutik, dohainik jaitsi ditzakete abestiak.

Trilogiaren bigarren lan honetarako, zergatik aukeratu duzue kontainer urdina?

Erabakia lehenagotik zegoen hartua. Trilogiarekin hasi ginenean, hitzartu genuenean kontainerak izango zirela elementuak, lehen-dabizikorako, *Materia organikoa eta gainerrakoak* lanerako, berdeari lotu genion. Orain, papera eta kartoiari iritsi zaio garaia. Kaleetan ikusten dugun bezala, hau urdina da. Aurrez planteatutako gauza bat da hau.

'Materia organikoa eta gainerrakoak' lanarekin alderatzeko gero, zeintzuk dira aldaketa nagusiak?

Lehendabizikoa eta handiena, denbora tartea da, eta bertan eman diren aldaketak. Bi modutakoak izan dira hauek, alde batetik, lehen alea, *Materia organikoa eta gainerrakoak* izenekoak, orain dudan ikuspuntutik begiratuta, gogorra goa iruditzen zait. Gogortasuna nabariagoa zen, garratzagoa zen. Bestetik, bigarren aldaketa ikusmoldean dago. Beste behin ere ba-



HITZA

«Zuzenekoan emozioak eta sentsazioak dira helarazi nahi direnak»

rruko gauzetatik abiatzen da, baina askotan ez da barrutik ateratzen. Kubo batez ari gara hitz egiten. Abestietan kontatzen da kubo baten barruan zaudela. Hala, kantuetan irudi ezberdinak agertzen dira. Kubo baten barruan zaudela, Atlantikoan hondoratzen ari den pertsonaren inguruan ere hitz egiten dugu abesti batean. Horrelako uneak edo eszenak agertzen ditugu azken lanean. Azkenik, musikari dagokionez, bloke harmoniko batzuk osatu ditugu eta oso interesgarriak dira atzetik sortu diren kantuak. Hau da, ez lehendabiziko lerroan daudenak, konponketekin-eta eratu diren geruzak. Zentzu horretan abesti osoagoak dira.

Hitzen eta musikaren artean inoiz baino lotura handiagoa dago lan honetan. Apropos agin al duzue? Disko honetarako hitzak idazten hasi nintzenez zailtasun handiak izan nituen. Ez nintzen gurguragertzen sortzen nuenarekin, gaien nahiz formen aldetik. Hori dela eta, konposatzeko modua aldatzea erabaki nuen. Gaztelaz, narrazio egitura erabiliz idazten hasi nintzen. Hortik ideia, sentsazio, une eta gertaera batzuk laburbilduz,

eta euskaratuta, kantuetara eraman nituen. Honela, lortu dudana emaitza ikusita, esan dezaket, abesti batzuetan, musika eta esal-

Trilogiaren barruan ikusten ari gara zer nolako gora-beherak dauden; nondik nora goazen

diek indar handia lortu dutela. Ez da aurretik pentsatua nuen zer bai izan, modu erabat berria izan da; gustura geratu naiz emaitzarekin. **Garrantzi handia ematen diezu hitzei.**

Bai, gauza nabaria da kantu batek hitzik ez badu, edo hauek kaskarrak baldin badira, abestia izateari uzten diola. Guk horrelako esperientzia txiki bat izan genuen. Markabat grabatu genuen, hau hitzik gabe zegoen, frogatzen baitzen, ondoren, diskoa egiteko. Eta, inguruko erakutsi genienez, zalantza handiak erakutsi zituzten kantuekin. Emaitza ikustean, ez zirela abesti berdinarik esaten ziguten.

Musikarekin, jendea hunkitzea, eta zirrara eragitea da zuen helburua.

Zuzeneko batean edo disko batean helarazi nahi diren gauzabakarrak emozioak eta sentsazioak dira. Agian mezu bat ere bai, baina oinarrian, emozioak igortzea da xedea. **Zuk konposatzen dituz abestiak, zerk inspiratzen zaitu?**

Inspiratu, oro har, ezerk. Oraingo honetan, gainera, kontrako esperientzia izan da, lehorre handia izan baitut. Lan kontuak zirela eta, ez nuen denborarik hartzen, eta hau pixka bat baztertu nuenen, eta lasaitasun une batera iritsi nintzenez, orduan atera zitzaizkidan gauzak. Inspirazioa ez dakit zer ote den, baina lasaitasuna behintzat behar da.

Proiektu honetan, lan batetik bestera utzitako denbora tartea ere txikia izan da, iaz argitaratu baitzen lehendabizikoa.

Tartean bederatzik hilabete uztea aurreikusuten genuen, baina atzeratu egin behar izan dugu azkeneko. Horrelako apustu txiki bat egin nahi izan genuen, hau da, urtebete aldearekin ateratzeara, diskoak. Proiektu hau, oso interesgarria ari da izaten. Trilogiaren barruan ikusten ari baikara, zer nolako gora-beherak dauden,

nondik nora goazen. Bizitasun handia du eta ibilbide oso polita ari gara egiten. Hala ere, ikusi beharko da hirugarren lanarekin zer gertatzen den. Trilogia honekin amaituko baita. Azken argitalpen horretara ailegatzean, orduan ikusiko dugu zer gertatzen den Trilogiarekin, noraino iristen den emaitza. Oraingoan erdia gaingutu dugu.

Gora-beherak aipatzen zenituen, baina zein zentzutan?

Askotan, gauza batzuei ematen diezu garrantzia, baina gero, aldatu egiten dira eta beste batzuk nabarmendu. Hau musikan ere islatzen da, baita gustuetan ere. Musikarekiko, Kerobia ez zen berdina duela urtebete, edo orain.

Trilogia honekin apustu handi bat egin zenuten, hau da, diskoak internetez dohainik jaitsi ahal izatearena. Zergatik?

Rose Escargot diskoa argitaratu eta gero, erabaki genuen, beste lan mota bat egin nahi genuela. Horrela, trilogiaren ideia atzera zen. Hau da, ale bat urtean ateratzeara. Bestetik, musikaren industria ikusita, eta honetaz kontzientzia hartuta, Gor disketeari Trilogiaren proiektu hau aurkeztu genion. Berriek esan ziguten, merkatua ikusita, ezin zigutela hiru urteko proiektu bat bermatu. Hori zela eta, diskete bat sortzea erabaki genuen, SGAetik alde egitea eta gure proiektua nahi genuen bezala

Hirugarrena iristen denean ikusiko dugu nolako izan den ibilbidea; polita izan den edo ez

aurrera eramatea. Lehendabiziko emaitza hor dago, hau da bigarrena eta hirugarrena ikusiko da nola iritertzen den.

Euskal Herrian oso ezagunak bazarete ere, atzerrian lan gutxi egin duzue. Zuen asmoen artean al dago kanpora ateratzeara?

Euskal Herrikan kanpo ez dugu pisurik, hau saltzea gustatuko litzaike, baina ez da horrela. Zintzilik daukagun gauzetako bat da. Gustatuko litzaike kanpora ateratzea, baina ez ateratzearatik soilik. Baizik eta, jakinda, nora eta zertara goazen. Esaterako, Herrialde Katalanetara, Madrilera eta Andaluziako zonalde batzuetara joatea gustatuko litzaidake. Jakin behar da ondo, zer nahi den, nora joan nahi den eta zertarako.

Trilogia hirugarren diskoarekin amaituko da. Hasi al zarete lan nolako izango den pentsatzen?

Ez, interesgarriena denbora tartea bat uztea baita. Bestalde, errealitatean, denborak ez digu ematen gainera, hurrengo prestatzen hasteko. Bestalde, denbora tartea bat uztea ona da gauzak lasaitu daitezten eta ikusteko, uneoro, gauzak nola doazen. Hirugarrena iristen deneraino, ikusiko dugu nolako izan den ibilbide guztia, eta gauza polita izan den edo ez baloratuko dugu.

ikodemia
Pausoka

Hizkuntzak:
Arabiera, italiara,
frantsesa eta ingelera
Malla guztiak
Irakasle gaituak

Errefortzu eskolak:
Letrak eta zientziak
Adin guztiak
Eguneroko jarraipena
Taimana txikiko taldeak

Martin J. Iraola, 2 - behea
TOLOSA • Tel.: 943 67 24 48



Tolosako Urto lantegian egin dute txokolate tableta egiteko moldea. IMANOL GARCIA

Guinness errekorra lortzeko ahalegina egingo dute bihar

Tolosa » Munduko txokolate tableta handiena egiten saiatuko dira Tolosako gozogileak, Tolosa Goxuaren baitan.

ERREDAKZIOA

Bihar, munduko txokolate tableta handiena egiten saiatuko dira Tolosako gozogileak. Tolosa Goxua azoka ospatuko da bihar goizean, eta ekimenaren baitan aurkeztuko dute 6 metroko luzera, metro 1'erdiko zabalera eta 3 zentimetroko lodiera izango duen txokolate tableta. Hori egiteko 50 kilo txokolate erabiliko dute, Natra-

Zahor etxeak emandako txokolatea, hain zuzen. Ekimenaren hantitasuna ikusita, Guinness errekorretara aurkezte erabaki du Tolosako Udalak. Hala eskaera egin dute, eta hemendik aste batzuetara ikusiko da onartua den edo ez.

09:30 aldera hasiko dira tableta egiten eta 11:00ak aldera amaituko dute. Hau hoztu ostean, jendeak ikusteko moduan jarriko dute. Azkenik, 12:30ak aldera jendearen artean banatuko dituzte zatiak.

Baina biharko jaian ez da txokolatea bakarrik izango, era guztiakoko gozo eta gutziak izango baitira hiriko kaleetan. Zerbaitengatik esaten da hau dela urteko azokarik goxoena. Hala, Euskal Herriko,

Errioxako nahiz Galiziako gozogintzako ordezkarik bertan izango dira. Baita noski, Tolosakoak, Gorrotxategi, Pasteleria Eceiza, Gorosti, Gozona eta Saizarrekoak.

Sagar tarta lehia eta

Txapelketa herriko bat ere izango da bihar Triangulo plazan, sagar tartena, hain zuzen ere. Edonork har dezake parte bertan, baina horretarako, 10:00etatik 11:00etara bitartean tartak eta erabilitako errezeta, idatzita, eraman behar dituzte Triangulo plazan jarritako karpas. Epaila lanetan, Lourdes rekondo, Jose Mari Gorrotxategi eta Allarizko Fina Rei eta Osi gozotegiok ariko dira.

Gaur presoan «eskubideen aldeko» elkarretaratzeak



Presoen argazkiak estalita jarri zituzten debekuengatik. A. IMAZ

Politika » Ohikoa den bezala, hilabeteko azken ostirala izaki, bilkurak egingo dituzte eskualdeko hainbat herritan.

ERREDAKZIOA

Euskal presoan «eskubideen aldeko» azken ostiraleko bilkurak egingo dituzte gaur eskualdeko hainbat herritan.

Amnistiaren Aldeko Mugimendua, besteak beste, azken asteetan emandako atxilotetak salatuko ditu.

3.000 atxikimendutik gora

Euskal preso politikoaren eskubideen defentsan eta Etxerat elkarte-

» ELKARRETARATZEAK

- **Aduna.** 20:00etan.
- **Alegia.** 19:30ean.
- **Amezketak.** 19:30ean.
- **Anoeta.** 19:30ean.
- **Asteasu.** 20:00etan.
- **Ibarra.** 19:30ean.
- **Ikaztegieta.** 20:30etan.
- **Leizta.** 20:00etan.
- **Lizartza.** 20:00etan.
- **Orendain.** 20:00etan.
- **Tolosa.** 19:30ean.
- **Villabona.** 20:00etan.
- **Zizurkil.** 20:00etan.

ren ekinbidea babestuz hainbat sindikatu, alderdi politiko, eragile, norbanako esanguratsu eta herritar atxikitu dira «elkartasun uholdea» manifestura.

Laburrak

Bi txirrindulari harrapatu ditu auto batek Olarrainen

TOLOSA » 12:55ean gertatu zen atzo istripua. Olarrain auzotik Tolosara bidean Ford Fiesta auto batek bi txirrindulari harrapatu eta lurrera bota zituen. Istripua gertatu zen lekura anbulantzia joan zen eta bi zaurituak Asuncion erietxera eraman zituzten. Ertzaintzak adierazitakoaren arabera, larritasun handiegirik ez zuten.

'El secreto de sus ojos' ikusgai igande honetan

TOLOSA » Etzi, hau da, igandean, Juan Jose Canpanellaren *El secreto de sus ojos* filma ikusteko aukera izango da Leidorren. Lehendabizikoko emanaldia 19:30ean izango da eta bigarrena, 22:00etan. Astelehenean, ikuslearen egunean ere, izango da hau ikusteko aukera. Saio bakarra egongo da eta hau 20:30ean izango da.

Bihar 12:00etatik aurrera, Tolosa Kantari izango da

TOLOSA » Bihar kantujira izango da. Beti bezala, 12:00etan hasiko da, *Tontokale* deitutako tokian. Jakina den bezala, euskal kantak abestu nahi dituen edonork parte har dezake. Beraz, interesatuek Tontokalen (edo Alde Zaharrean, ibilbidean zehar) agertu besterik ez dute. Ohi den moduan, kantujira 14:00ak aldera amaituko da.

Tolosa » Auzo horretan aparkatuta zegoen autokarabana batean zegoen gaztea Ertzaintza hara hurbildu zenean.

ERREDAKZIOA

Herenegun, 07:30ean atzeman zuten 19 urteko gizona Tolosako Iurre auzoko autokarabana batean lapurretan ari zela.

Ertzaintzak esandakoaren arabera, lapurreta baten inguruko al-bista jaso ostean joan ziren Tolosako Iurre auzora, izan ere lekuko batek ibilgailuaren alarma entzun zuelako deitu zuten Ertzaintzara.

Ertzainak autokarabanara hurbiltzean, barruan norbait zegoela ikusi zuten eta susmagarria identifikatzera zihoazela, gizona gainera etorri zitzaizela dio Ertzaintzak. Gaztea atxilotu eta ertzain-etxera eraman zuten.

Gizon bat atzeman dute lapurretan, lurren

Hilberria

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

JOKIN ARRUABARRENA SALEGI

Aitona,
ilargiraino
ta bueltan
maite zaitugu

Uxue, Lander, Aner eta Aduar

ORERETA
2009ko
urriaren 30a



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Sei ahots talde ariko dira gaur, musika erlijiosoa eta profanoaren sailean

Kultura » Santa Klaran, 16:00etan musika erlijiosoa, eta Leidor aretoan, 20:00etan, musika profanoa.

ERREDAKZIOA

Abesbatzako Lehiaketako hirugarren saioa izango da gaur. Sei ahots talde ariko dira, musika erlijiosoa eta profanoaren sailean. Santa Klara elizan musika erlijiosoa eskainiko dute, 16:00etan hasita, eta Leidor aretoan, 20:00etan hasita, berriaz, musika profanoa.

Daarler Vocal Consort

- **Jatoria.** Saarbrücken (Alemania).
- **Zuzendaria.** Georg Grün.
- **Ahots taldeak.** 4 emakume eta 4 gizon.
- **Historia.** Kammer Chor Saarbrücken ospetsuko 8 abeslarik Daarler Vocal Ensemble izenpean Ahots Taldea osatu zuten 2008an. Talde zuzendari eta aldi berean abeslaria Geor Grün da, Kammer Chor Saarbrücken zuzendari eta sortzailea. Alemanian taldearen aurkezpena egin zuten Victoria Requiemarekin, Papae Marcelli Meza eta zenbait obra garaikide interpretatzen dituzte Berlinen, Neum-Ulmen, Manhei-



Ezkerrean Ko Matsushita eta Wilma ten Wolde epaimahaiko kideak, herenegungo saioan. Eskubian, Xabier Sarasola epaimahaiko lehendakaria. i.r.

men eta Saarbrücken. 2008ko urrian Sardiniako Concordia Vocis Jaialdian parte hartu zuten, 2009ko apirilean Salamancan bira egin zuten, eta Berlinen Nacht der Kirchen jaialdian parte hartu zuten.

Wishful Singing

- **Jatoria.** Amsterdam (Herbeherak).
- **Ahots taldeak.** 5 emakume.
- **Historia.** Bost abeslari holandar gazte osaturik dago taldea. Euren kontzertuetan musika klasikoak folka, popa edota izpiritualak bezalako beste generoekin tartekatzen dute. Holandan arrakasta handiz abesten dute. Bertako irrati klasi-

korako eta areto garrantzitsuetan ere abesten dute. 2009ko martxoan Almelon Dutch Vocal Ensemble Festivalean lehen saria lortu zuten, eta uztailean International Choi Biennale Haarlemgo irekiera kontzertuan abestuko dute.

Discantus Vocal Ensemble

- **Jatoria.** Budapest (Hungaria).
- **Zuzendaria.** Peter Meszaros.
- **Ahots taldeak.** 5 emakume eta 7 gizon.
- **Historia.** 1996an eratu zuen Peter Meszaros. Bera ere taldeko abeslaria da. 25-35 urte bitartekoak dira taldekideak. Lehen kontzertua 1997ko urtarrilean eskaini

zuten. Budapestean zein Europako beste hainbat hiritan eman dituzte kontzertuak. 2001ean Budapest International Choral Competition-ean Ahots Nahasiaren atalean lehen saria irabazi zuten. Urte bereko uztailean Wernigeroden, euren sailean lehen saria eta sari nagusia eskuratu zuten. 2004an Gorizian (Italia) hainbat sari lortu zituzten Ganbara Abesbatzen saileko lehen sariaz gain. Musika erlijiosoa-ren interpretazio ispiratuenarengatik epaimahaia saria eta lehiaketako abesbatza onenaren saria lortu zuten.

PVD Ensemble

- **Jatoria.** Tokio (Japon).
- **Zuzendaria.** Hiroki Fujii.
- **Ahots taldeak.** 8 emakume eta 8 gizon.
- **Historia.** Purist Vocal Design Ensemble Hiroki Fujii eratu zuten, «musika eta gizakia elkarrekin maitatu dituzten» ahotsak sortzeko. Victor Entertainmentek eta Columbia Music Entertainmentek ekoiztutako ikasleentzako abesbatza musikaren DKren grabaketekin hasi zen taldearen historia. Urtero Tokyo Cantaten eta Coro Festan hartze dute parte. HAla, Tokyo Vocal Ensemble Contesten 2006an berpizkunde eta barroko sailean lehen saria eskuratu zuten eta beste lehen sari bat Yamanas-

hi Vocal Ensemble Contesten, 2007an.

Chamber Choir Gneis

- **Jatoria.** Bergen (Norvegia).
- **Zuzendaria.** Tore Kloster.
- **Ahots taldeak.** 8 emakume eta 8 gizon.
- **Historia.** GNEIS Ganbara Abesbatza 2005ean eratu zuten Tore Kloster zuzendariak. Ahots nahasiko abesbatza hau 20 abeslari trebatuz osatua dago. Hasieran bere helburuak Norvegiako mendebaldeko musikagileek idatzitako abesbatza musika garaikidean kokatzen ziren. Gaur egun, abesbatzak bere egitarauetan erreperitorio desberdinak aurkezten ditu. *Aldri for* bere lehen diskoa Knut Vaage norvegiar konpositorearen gaurko musikan kokatzen da.

Il Suono

- **Jatoria.** London (Erresuma Batua).
- **Ahots taldeak.** Emakume 1 eta 3 gizon.
- **Historia.** Britainia Handiko ahots talde dinamikoetako da, ahots bakarlarik malguren konbinazioagatik, talde dinamikagatik eta bere entzulegoarentzat musika era zorrotzean eta entretengarrian interpretatzeko duen konpromisoarengatik. Taldearen erreperitorioa zabala da, eta garai guztiak hartzen ditu, baina XVI. mendeko musikan jartzen dute interes handiena. Beti ahots bat erabiltzen dute zati batentzako. Abeslari gazteak dira, baina, hala ere esperientzia zabala dute, eta haurtzarotik musika heziketa handia.

Europar mendebaldeko eredutik



» Iritzia

Migel Zeberio
Koru zuzendaria

Indartsu eman zion hasiera Lehiaketak. Nahiz eta Italiako Musicanova taldeak, Iberia hegazkin konpainiaren grebaren ondo-

rioz, kale egin zigun, kalitateak aseptu gintuen. Letonia eta Txinako taldeek musika egiteko gaitasun nabarmena eta baliabide aberatsak erakutsi zituzten.

Kosta egin zitzaion letoniarrei saioa irekitzea; Epel, soinu potentziala noiz eta nola azaleratu ezinean edo. Victoria, Bello eta Sisask-en obra polifonikoak atzean utzi eta erritmo bizkorragoetan murgildurik eztanda egin zuen Letoniak. Duda-mudak, ataka kaxkarrak gainditu, eta zuzendaria bera ere itxuraldatu zen bere onera etorriaz. Abesti horiek, polifonia edo folklo-

rean sailkatzea, beste kontua litza-teke. Tamalez, kanten izenburuen itzulpenik ez genuen jaso, beti bezala. Folklorearen uretan erosoago lan egin zuten. Euskaraz, ahoskera garbik, *Txantxibirin* obra behartuaren atal desberdinei txinpartak atezazkioten. Overtura antzeko pieza honen atal bizkorrei erritmo jolasgarria jarri zioten. Erdiko bakarlariaren atala adiera goxokoa suertatu zitzaion. Soinu tresna herrikoiak laguntzarekin: zitarra, kainerazko txurila eta soinuaren laguntzaz, Aizej Liutin (1977) konposagileak egindako obran sonoritate

berriak lortu zituzten. Itzelezko plazerra izan zen. Pena, horren antzerako gai gehiago eskaini ez izana, asekaitez gelditu nintzen.

Tradizio luzeko txinatar inperio aberatsetik etorritako kantore gazteak, mendebaldeko ohiturara marurtzea ez da bide erraza. Benetan merezi ote duen galdetuko nioke nere buruari. Europar kulturaren ereduak imitatzen halere txukun aritu ziren. Javier Belloren *In monte Oliveti*-ren entzunaldian zenbaitzuk beharbada gauza arraro edo artifizioz beteak entzun zituztela usteko dute. Baina ez entzule, Bello jaunak ohiko zuten, ia nota ororen gainean akotazio edo ñabarduraren bat idaztea, neurri barregarrietara iristera arte: azentu mota, efek-

tu, dinamika eta erritmo aldaketa ugariak. Hauek guztiak aintzako-tzat hartuz gero emaitza: Peiyang ek lorturikoa adibide, lan handia eskatzen duten onura gutxiko ikutuak. Obra honi buruz esan nahi nuke ere, badela 1949ko bigarren bertsi berritu eta osatuagoa: interesgarriagoa.

Sinkronizazio eta enpate landuak, txinatar konposagileen lanetan izan zituen emaitza bikainenak. Tarte eder askoak igaroarazi zizkiguten; Arwin Tanen (1971) obra maisu bezain dramatikoan edo Se Enkhbayarek (1956) idatzirikoa perlatxoan.

Finean, lehen arratsak, tarte gozamenekoak eta zoragarriak entzuteko aukera eman zigun.

Ahotsik ederrenen
atzean ere,
kutxa dago.

Urtero bezala, gure **Gizarte Ekintza**ren bitartez, aurtun ere laguntza ematen diogu **Tolosako Abesbatza-Lehiaketari**, beronen 41. Edizioa babestuz, gure herriaren **musika, kultura eta balioak** zabaltzearen.

gizarte ekintza

kultura

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

kutxa

Tolosako 41. Abesbatza-Lehiaketa
Urriaren 28tik azaroaren 1era

Ekitaldi ugari biharko Asto Festa ospatzeko

Elduain » Jose Luis Artola 3 kilometro dagoen Muga tontorrera igotzerakoan marka berria egiten saiatuko da.



Asto jatea egingo dute bihar, pilotalekuan, 21:00etatik aurrera. N. URBIZU

ERREDAKZIOA

Asto Festa izango dute bihar Elduainen. Bazkaldu eta gero hasiko dira ekitaldi guztiak eta ordu txikietan bukatuko dira diskojaiari esker.

53 urtetako Jose Luis Artola izango da giroa berotzen hasiko dena. Amasarrik 44 urtetako erre-zildar batek Elduaindik 3 kilometro dagoen Mugaren tontorrera igotzen egindako marka hobetzen saiatuko baita. «Marka ez hobetzeak ez dit batera larritzen», argitu du Artolak. Errezildarrak 19 minutu eta 10 segundo behar izan zituen tontorra korrika igotzeko. «Tonto-tonto hasi ginen honekin, erdi zirikatzen, ea egingo nuen esan zidaten eta animatu egin nin-

zen. Behobian ere hartuko dut parte eta hartara entrenatu ere egingo naiz», argitu du. «Gogorra izango da, erritmo oso gogorra baita, baina saiatuko naiz, behintzat», gaineratu du.

Artola ez da apustu zalea eta beraz, berak ez du ezer jokatu, «besteren batek egingo zuen apustua, baina niretzako lasterketa hau Asto Festari egiten diodan ekarpena besterik ez da».

» EGITARAUA

- **16:30.** Mugara igoera: 19 minutu eta 10 segundo marka hobetzen saiatuko da Jose Luis Artola.
- **17:30.** Haurrentzako ibilaldiak zaldi gainean.
- **18:00.** Herri kirolen erakustaldia: ingudea, trontza, txingak...
- **21:00.** Herri afaria: urteroko asto jatea egingo dute pilotalekuan.
- **00:00.** Diskojoia.

Laburrak

Ipuin kontalaria gaur, Kultur Etxean

IBARRA » Ipuin kontalaria izango da gaur, Ibarako Benito Izagirre kultur etxean 18:00etatik aurrera. Ibarako Udal Liburutegiak antolatuta. Saioa Miriam Mendozak zuzenduko du eta 5-8 urte bitarteko haurrei zuzenduta egongo da. Mendozak eskarmentu handia du arlo honetan eta Ibaran zein eskualdeko zenbait herrietan eskaini ditu jada saioak.

Intxurre pilota elkarteoen partidak asteburuan

PILOTA » Intxurre pilota elkarteok bost partida izango dituzte Gipuzkoako Txapelketaren baitan asteburuan. Etxean Ikaztegiaren jokatu dituzte eta bi partida izango dira. Gaur 20:00etan hasita, kade-te mailan buruz burukoan Bergararen aurka jokatu du Arandiak eta binaka Intxurre Iekoek Hernaniren aurka jokatu du. Kanpoan, hiru partida izango dira: nagusietan Arrasateko eta Intxurre 1 eta Antiguako eta Intxurre 2, eta kadeteetan Andoaingo Gazteleku eta Intxurre-Gailurrerantz.

Zahar-berritze eta arte aplikatuen ikastaroa

VILLABONA » Villabonako Udalak argitu dutenez, zaharberritze eta arte aplikatuen tailerrea hiru plaza libre daude. Ikasle berriak azarotik aurrera hasi ahal izango dira. Ikastaroa astelehenetan (17:00-19:30) edo astearteetan (10:00-12:30) izango da eta kuota 75 eurokoa da. Izena emateko eta informazio gehiago lortzeko Udal kultura saileko 943 69 16 55 telefono zenbakira deitu behar da.

Talo egitea, afaria eta bideo emanaldia, gaur

OREXA » Orexako Kultur Hamabostaldia aurrera doa eta asteazkeneko Juanxo Agirrerren hitzaldiaren ondotik gaurkoan taloak egiten ariko dira 19:00etan. Afaria ere antolatu dute eta ondoren, *Errezilgo gari lanak* bideo emanaldia izango da. Bihar ere izango dute zeregin Orexan; 16:30etik aurrera umeentzako puzgarriak jarriko dituzte eta ondoren merienda ere banatuko diete. 22:30etik aurrera, gainera, *Ate Joka* antzerkia ikusteko aukera izango da.

Azaroaren 6ra arte eman daiteke izena Azoka Egunean aritzeko

Berastegi » Lau txapelketa egingo dituzte azaroaren 15ean: azokako postuen artekoa, ardi eta ahariena, animaliena eta gaztena.

ERREDAKZIOA

Azken urteetan bezala, aurtengoa ere Berastegiko Kultur Astearen baitan Azoka Eguna antolatu dute. Kultur Astea azaroaren 5ean hasiko da eta Azoka Eguna berriz, azaroaren 15ean izango da. Eguraldiaren arabera, frontoian edota futbol zelaian egingo dute 11:00etatik aurrera, eta besteren artean, lau txapelketa burutuko dituzte: azokako postuen artekoa, II. Ardi-Ahari Txapelketa, III.

Animalia Erakusketa eta gazta txapelketa. Lau ekitaldi hauetan parte hartzeko azaroaren 6a baino lehen eman behar da izena udaletxean bertan 943 68 30 00 telefono zenbakira deituta edota sebas@berastegi.com helbide elektronikora deituta.

Aipatu bezala, lau txapelketa egingo dituzte Azoka Egunean, bertan. Azokan herriko bertako produktuak egongo dira eta urteroko sariak banatuko dituzte postuen artean. II. Ardi-Ahari Txapelketa dagokionez, Ipar Euskal Herriitik bi baloratzaile izango dira Berastegin eta herriko artzairen animaliak ikusiko dituzte. Ezaugarri morfologikoak bakarrik hartuko dituzte kontutan (itxura, ilea...) eta berdin dio muturbeltzak edo

muturgoiak diren. Parte-hartzaile bakoitzak bildots bat, ardi bat eta ahari bat aurkeztu ahal ditu. Norberak eraman beharko ditu animaliak futbol zelaira 10:00etan eta hiru sari egongo dira: bildots, ahari eta ardi hoberenarentzat. Diploa eta 100 euroko pentsu-balez osatutako sariak banatuko dituzte.

III. Animalia Erakusketan, al-diz, edozein mota eta tamainako animaliak aurkeztu ahal dira. Partaideen artean 60 euroko pentsu-balea zozketatuko dute.

Honetaz gain, gazta txapelketa ere egingo dute Berastegiko gaztagileen artean. Txapelketa interesgarria izango da, gainera, herrian gaztagile ugari baitago eta sari ugari ere jaso izan dituzte.



Paraje ederrak ikusteko aukera

IBARRA » 19 motorzale bildu ziren pasa den igandean Ibarako Langostino Moto Kultur Elkarteak antolatutako moto-biran parte hartzeko. Urteko zortzigarren irteera izan zen eta herriatik bertatik irteerakoan euria egiten bazuen ere, gerora eguraldi lehorra izan zutela argitu dute. Leitzarango eta Ultzamako bailarak ezagutu zituzten motorzaleek eta «paraje beneratan ederrak» ikusteko aukera izan zutela nabarmendu dute. Datorren bira, urteko bederatzigarrena, azaroaren 29an egingo dute. HITZA



TEUSA



**FATXADA ETA ESTALKIEN KONPONKETA
ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO TEKNIKAK**

Tel.: 943 401 340

teusa@teusa.com
www.teusa.com

Agenda 21eko proiektu partekatuak bideratzeko zerbitzua aurkeztu dute

Agenda 21 » Tolosaldea Garatzen eta Tolomendi agentziek koordinatuta, Tolosaldeko hamabi herririk parte hartzen dute.

IMANOL GARCIA

Tolosaldean Agenda 21en garapenean egitasmo berria jarri dute martxan aurten eta horren aurkezpena egin zuten atzo Alkizan hainbat erakundeetako ordezkariak. Garapen iraunkorreko proiektu partekatuak bideratzeko zerbitzua da egitasmo hori, Tolosaldea Garatzen eta Tolomendi agentziak gauzatzeko proiektua eta Foru Aldundiak diruz laguntzen duena. Egun hamabi udalek parte hartzen dute zerbitzuan: Abaltzisketa, Alkiza, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Ikaztegieta, Irura eta Villabona.

Prensaurrekoaren mahaiaren eseri ziren Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua, Jon Roteta Alkizako alkatea, Marimi Ugalde Irurako alkatea eta Joxe Luis Urdangarin Tolosaldea Garatzeneko kudeatzailea. Tolomendi-



Prensaurrekoa eman zuten Marimi Ugaldek, Jon Rotetak, Carlos Ormazabal eta Joxe Luis Urdangarin. I. GARCIA

ko ordezkaria eta beste herri guztietako ordezkariak ere aurkezpenean izan ziren. Berastegikoa, Berrobiakoa eta Villabonakoa izan ezik.

Jon Rotetak Agenda 21en garrantzia nabarmendu zuen, «herriko ingurumena, ongizatea eta ekonomia batzen dituen proiektu estrategikoak aurrera eramateko eta herritarren parte-hartzea sustatzeko» erabiltzen den tresna dela azalduz. Zerbitzu berria Alkizarentzako «oso interesgarria»

dela zehaztu zuen, «ez ditugulako behar diren baliabideak herri txikia izanik».

Marimi Ugaldek ere bat egin zuen Agenda 21aren garrantzia nabarmentzean eta batez ere herritarren parte-hartzea eta eskola-ko Agenda 21 nabarmendu zituen. Foru Aldundiari aurrerantzean ere laguntzen jarraitzeko eskatu zuten ekimenak garatzeko eta eskualdeko beste herriak egitasmoan parte hartzera gonbidatu zituen.

Hiru urtetarako diru laguntza

Carlos Ormazabalek zerbitzuan parte hartzen duten herriak zori ondu zituen eta azaldu zuen «ezinbestekoa» dela «denon arteko elkarlana». Aldundiak 200.000 euroko diru laguntza eman du hiru urtetarako (2009-2011) eta aurrerago ere laguntza emateko asmoa dutela azaldu zuen Ormazabalek.

Joxe Luis Urdangarin zerbitzua martxan nola jarri zen gogoratu zuen: «2008an hausnarketa bateginen Agenda 21 nola bultzat-

tu behar zen ikusteko. Bertan proposatu zen jarraipena eskualde mailakoa izatea. Hori kontuan hartuta erronka hartu genuen Tolosaldea Garatzenek eta Tolomendik eta proposatu genuena izan zen gaur hemen aurkezten ari garena sortzea».

Egitasmo horren helburua «bati bat zerbitzuak eta kasu honetan hiru teknikarien dedikazioa partekatzeko plataforma bat sortzea» da. «Hori sortzeko ezinbestekoa izan zen Aldundira joan eta hark baiezkotzea». Egitasmoak koordinatzaile bat du, Garbiñe Mendizabal, Tolosaldea Garatzeneko dagoena.

Zerbitzu horietatik bideratzen diren proiektuen abiapuntua Agenda 21a da. Bertatik bideratzen dira neurri handi batean Agenda 21erako herririk egin dako planak. Aurten hainbat proiektu burutu dira: Aste Berdea, Mugikortasun Astea, Eskola Agenda, autoa partekatzeako kanpaina, GAP programa... Horrez gain, Urdangarin zehaztu zuenez, «herri bakoitzean sortzen diren momentuko proiektu esanguratsuak».

Zerbitzua modu integral batean planteatzea «garrantzitsua» dela gaineratu zuen. «Azken finean, proiektu honekin Agenda 21 bulego bati buruz hitz egiten ari gara, non bertan dauden teknikariak batera lanean ari diren», zehaztu zuen Urdangarin.

E Elkarriketa

OSCAR CORMENZANA » Venezuelako fabrika okupatu eta langileen kontrolpeko agintari sindikala

«Venezuelan muturreko pobrezia %40tik %9ra jaitsi da iraultzarekin»

Tolosa » Venezuelako iraultzaren defentsan hitzaldia emango du gaur Pablo Cormenzanak Engels Ateneoan.

I. GARCIA

Pablo Cormenzanak hitzaldia emango du gaur, 20:00etan, Tolosaldeko Engels Ateneoan (Erremontari, 8), iraultza venezuelarraren defentsan. Cormenzana Venezuelako fabrika okupatu eta langileen kontrolpeko agintari sindikala da. Hitzaldia Euskal Herria Sozialista aldizkariak eta *Eskuak Venezuelatik kanpora* Latinoamerikarekin nazioarteko elkartzan kanpainak antolatzen dute.

Zer gai ikutuko dituz hitzaldian? Egiten ari naizen biraren eta hitzaldia honen ideia nagusia, ahal dudana neurrian, Venezuelaren

iraultzaren aurka egiten den desinformazio kanpainari aurre egitea da. Kanpaina hori batez ere oso indartsua da Espainiako Estatuan, batez ere burgesiako zenbait sektorek interes ekonomiko indartsuak dituztelako Venezuelari. Beraz, iraultzaren azken hamar urte hauetan izan diren lorpenak nabarmenduko ditut. Azalduko ditut baita ere Venezuelari eman denezko duntza burgesiaren eta sektore herrikoien artean, etorkizunera begira ditugun aukerak, iraultzak dituen gabeziak, eta izaten ari garen esperientzia azaldu hemen baliagarri izan daitekeena, ikusi baitugu kapitalismoaren krisia hemen ere oso handia dela.

Zein dira iraultzaren lorpenak?

Adibidez, hezkuntza mailan, aurreko gobernuak pribatizazio politika zeukaten. Oso zaila zen, gero eta zailago, hezkuntzan sartzea. Horri guztiari buelta eman zaio

eta, horrela, 2005ean Unescok Venezuelari analfabetismo gabezia herrialde bezala izendatu zuen. Egun 15 urtetik gorako %99,6 irakurtzen eta idazten daki. Osasunari dagokionez, lehen mailako atentzioa masifikatzea lortu da. Datu bat ematearren, haurren heriotza-tasa erdira jaitsi da, hau da, mila haurretatik 13, eta tasa hori Kubak eta agian Txilek bakarrik hobetzen du Latinoamerikan. Bestalde, muturreko pobrezia, Chavez 1998an Gubernura iritsi zenean, %40aren inguruan zebilen, eta egun %9ra jaitsi da. Ikus daitezkeen beste hainbat adibide eman ditzakegu.

Eta iraultzaren gabeziak?

Egiteke dauden kontuei dagokionez, etxebizitzaren arazoak kritika izaten jarraitzen du. Ez dago Estatuan aldeak eskaintzarik jendearen eskaera bete ahal izateko. Delikuentziaren arazoak



HITZA

oraindik darrai sektore herrikoietan. Beste kontua inflazioa da, urteko %30 ingurukoa dena, eta batez ere sektore herrikoiei eragiten diena.

Chavez bera, pertsona bezala, ezbaian jartzen dute bere aurkariak. Zer iritzi duzu zuek?

Nire ustez bere bertute nagusiengatik gizon zintzoa dela eta esaten duena sinesten duena eta aurrera eramaten saiatzen dena. Sentsibiltate sozial handiko gizona da, eta bere ibilbide politikoan hasieratik erakutsi du hori. Horrek mugitzen du politikoki, hau da, txirotu aldeko justizia egiteak. Jatortri apalekoa da eta horrek eragina

izan du. Nire ustez merituko pertsona da, iraultza prozesu guztia bide paketsuetatik bideratu duelako, sektore herrikoien mobilizazioarekin. Eta mobilizazio hori mantendu egin du, tartean venezuelar izateaz harro sentitzearen berreskurapenaren bitartez. Bestalde, bere izateko modua ezbaian jartzen dute burgesiaren sektoreek bere izen ona galarazteko. Baina herriak hori ondo ikusten du, herriak kalean abesten duelako, oso alaia da, eta ikustea presidentea beraien berdina dela gustatzen zaio. Nik neuk ere nahiago dut pertsona alai bat izatea, abesten duena, irekia dena.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaledea: 687 410 022. anoetaledea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraledea: 687 410 032. ibarraledea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Asteasu.** Alurren *Sua* ikuskizuna frontoian 22:00etan.
- **Larraul.** Herriko irudiez osatutako egutegi bat argitaratzeko argazkiak bildu nahi dituzte. Argazkiak Aitor Atxegari eman behar zaizkio. Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, lau argazki entregatzeko aukera dauka eta ez da jarri ez adin mugarik ezta saririk ere.
- **Orexa.** Kultur Hamabostaldia: talo egitea 19:00etan, afaria eta ondoren bideo emanaldia: *Errezilgo gari lanak*.
- **Tolosa.** Azaroko zine bonuen salmenta ondorengo egun eta orduetan egingo da: ostiralean, urriak 30, 11:00etatik 13:00etara eta igandean, azarok 1, 17:00etatik 19:00etara.

Musika

- **Tolosa.** Señor No eta Dirty pink ladies taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean.
- **Tolosa.** Hungariako Discantus, Herbeheretako Wishful Singing, Alemaniako Daarler, Norvegiako Gneis, Japoniako Pvd eta Erresuma Batuko Il suono ahots taldeek saioak: Santa Klara elizan 16:00etan musika sakratua eta Leidor aretoan 20:00etan musika profanoa.

Hitzaldia

- **Tolosa.** Asier Izagirrerren hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan, Aiz Orratz elkartearen 75. urteurrenaren baitako ekimena.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. 943 670648.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

A Agurrak



Urte askoan!

Nora (Anoeta). Gaur gure sorgintxoak 7 urte. Zorionak eta muxu potolo bat etxekoan partetik.

Elorri, erabilgarri

Azpiegiturak » Espainiako Gorbenuaren diru laguntza pilotalekua berritzeko bideratu zuen Udalak; jada irekita dago.

ERREDAKZIOA

Elorri pilotalekua dagoeneko erabilgarri dago Alegian. Zoruarekin hainbat arazo izan direnez, uste baino zertxobait beranduago izan da irekiera baina azkenik pasa den astelehenean prest dute alegiarrek pilotalekua. Udalak datorren hilean inaugurazio ofiziala egingo duela aurreikusi du, data zehazteke duten arren.

Udaleko arduradunak gustura daude lanek eman duten emaitzarekin.

Espainiako Gobernuak udalei emandako diru laguntzarekin frontoiaren eta gimnasioaren teilatua guztiz berritu dituzte eta horrez gain hainbat konponketa eta aldaketa egin dituzte; esate baterako, ezker horma berdez margotu dute eta frontoiaren kanpo geldituzen diren hormak urdinez margotu dituzte. Harmailak ere margotu dituzte Bestalde, frontoitik



Aurrerantzean itxura hau izango du Elorri pilotalekua. HITZA

kanpora zuzenean ateratzeko zegoen atea ezeztatu dute eta txikiago bat ireki dute ondoan.

Halaber, lurra margotuko dute, bai areto futboleko, bai eskuba-

loian eta bai saskibaloian aritzeko.

Eta frontisaren inguruko koltxoia beltz kolorekoa izango da. Argiztapena ere berritu dute.

» IRRATIA

Txolarre irratia

- 10:45-11:00. Elhuyar Fundazioaren Quark saioa.
11:00-13:30. Tolosaldeko Ahotsa: Al-bistegia, Magazina, Lehiaketa eta disko eskainiak.
13:30-14:00. Albistegia - Info 7.
14:00-15:00. Tolosaldeko Albistegia.
17:00-17:45. Musika nobedadeak.
17:45-18:00. Elhuyar Fundazioa Quark saioa.
18:00-20:00. Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena).
20:00-20:30. Albistegia, Info 7.

» TELEBISTA

28 kanala

- 08:30. Wazemank 09:00. Klipak 09:30. Tolosaldean Gaur 10:00. Kafe t'ardi 10:30. EH Lau haizetara 11:00. Itsasoari begira 11:30. Tolosaldean Gaur 12:00. Ikusten 12:30. Ur eta lur 13:00. Alex eta Alexis 13:30. Tolosaldean Gaur 14:00. Kafe t'ardi 14:30. EH Lau haizetara 15:00. Itsasoari begira 15:30. Tolosaldean Gaur 16:00. Ikusten 16:30. Ur eta lur 17:00. Alex eta Alexis 17:30. Tolosaldean Gaur 18:00. 28 klip 18:30. Ilunpean 19:00. Lamien artean 19:30. Tolosaldean Gaur 20:00. Perretxikoak. * (16:30etik 20:30era bitarteko blokea lau orduko errepikatuko da).

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritzien erantzunik.

mantangori reklin

Zinema etxean 4

6 DVD euskaraz

Larunbat honetan

Gipuzkoan eta Nafarroan

berria

HARPIDEDUNENTZAT. BILDUMA OSOA 26 €
ESKARIA. EGITEKO: 943 43 43 45.
harpidetza@berria.info
edo www.berria.info

Batasunak: **ETXEO HARPIDARITZA EGITZETEN ERROK**

aukera ezazu. BIZI euskaraz **berria**

EUSKARAZKO LEHEN SUKALDARITZA BILDUMAREN 2. alea

200 ERREZETA HARPIDEDUNENTZAT

berriaren harpidedun eta irakurleek erdi prezioan 12€

Bete ezazu urriaren 18tik 31 bitartean BERRIAN argitaratuko den erreserba kupua eta utzi zure kioskoan azaroaren 8a baino lehen.

BI ASTEREN BURUAN KIOSKO BEREAN JASOKO DUZU LIBURUA.

Laguntzailea: **FAGOR**

aukera ezazu. BIZI euskaraz **berria**